

# Egia deserosoak

Irati Majuelo

Ahots berezia da Maryse Conde guadalupetarrarena, ezezaguna oraino euskaraz. 39 urte zituela argitaratu zuen bere lehen eleberria, haurtzarotik istorioak asmatzeko grina izan bazuen ere munduak esana baitzion hura ez zela bere egin beharra, ez zela atsegina sortzen zuena. Conderentzat idazteak egia aditzera ematea esan nahi baitu, eta egia ez da izaten belarri oren gustagari. Halakoak dira, halaber, bere testuak, ur izoztuzko kubo baten gisara ere munduak ahal zaizkizu gainera, deskuidatzen bazara.

Egia deseroso horien aurkikuntza ikus daiteke *Bihotza negar eta irri* memoria liburuan. Izan ere, haurtzaroko eta nerabezaroko oroitzapenak eta anekdotak biltzen ditu narrazio laburretan, Conderen nortasuna eta identitatea taxutu duten gertakariak age-ran jarri. Familia beltz eta bur-

gesean jasotako heziketa frantses zorrotza, zortzi seme-alabetan azkenaz izateak eta ustekabez jaio izanak utzitako marka, lehendabiziko maitasun-ustea, klase sozialaren arteko arrakalak, norberaren belztasunaren deskubrimendua... Ugariak dira istorio motz hauetan oroitzapen xumeetatik azaleratzen diren gaiak, bidena-bar gogoeta eta kritika unibertsaletara bideratzen dituenak idazleak erraztasun handiz: egia dese-



**'Bihotza negar eta irri'**

**Egilea:** Maryse Conde.  
**Itzultzailea:** Joxe Mari Berasategi.  
**Argitaletxea:** Erein/Igela.

rosoak burutik behera. Umearen begirada inuzentearekin, helduaren senetzko kontzientziarekin aletzen du Condek familiako tes-tuinguru bipolarra: kaleko umee-kin nahasteko aberatsegia, kreoleraz mintzatzeko frantsesegia, alabaina Guadalupeko *blanc-pays*-entzat arrotzegia, Parisko metropoliko zurientzat beltzegia.

Bestalde, bereziki ederra da nola deskribatzen duen haurra zela idazketan aurkituriko potentziala. Bi pasarteren bidez azaltzen du: lehendabizikoan, bere lagun Ivelyseri buruzko lan bat egin behar duenean eskolan, eta bigarrean, amari poema bat idazten dienean urtebetetze egunez. Bietan ala bietan eginahal handia erakusten du Conde neskatilak maite dituen pertsoneri buruz idazki zintzo eta leialak ontzeko, eta, halaber, bietan jasotzen du harridura eta haserre bueltan, bere literatur bidean sarri hautemango zuen gisan, egia adierazteko gaitasun handia (handiegia zenbaitentzat) baitu. Hala, irakurlea ohartzen da txikitatik joan dela osatzen Conderen estilo propioa: tolesgabea bezain sakona, malenkoniatsua bezain gordina, eta, batik bat, zintzoa.


Memoria liburu honetan, are, idazkera arina eta soila darabil Condek, oroitzapen-pasarte xalo eta arruntak, familia-bizitzako bi-zipenak gizarte gatazkatsu baten kontraesanekin, galdera konplexuekin talkan jartzeko. Estiloari heldu, ezin da itzulpena alde batera utzi. Izan ere, agerikoa da Joxe Mari Berasategik ezohiko hautua egin duela Conde Iparraldeko euskara batua dei diezaiokogunera itzultzean. Kurioso da, bidenabar, aukera horri buruzko aipamenik ez egitea aitzinsolasean; izan ere, irakurketa baldintza dezakeen erabakia da. Baina euskara batuari buruzko eztabaidatan sartzeko asmorik gabe, eta hizkuntza-aukeraketan bainoago idazkeran zentratuz, aipagarria da narrazioen berezko arintasunarekin kontraste nabarmena egiten duela sarri itzultzailearen estiloak. Hau da, ebidente den hizkuntza translazioaz gaindi, sobera nabari dela itzultzailearen eskua, Conderen soiltasuna hanpatu bilakatuz zenbaitetan. Lan handia dago itzulpenaren atzean, baina pasarte batzuetan testua aberasteko egindako hautuek osotasuna iluntzen dutela esan daiteke.



**'Orreagako kronikak. Errolan elezaharra'**

**Egilea:** Juan Luis Landa.  
**Argitaletxea:** Erein.


Karlos Handiak, erresuma germaniarren konkistatzaile eta Erromako elizaren babesleak, Marka Hispaniarra ezarri beharra du Pirinioen hegoaldean, imperio islamiarraren oldarrari eusteko. 778an, Zaragozara abiatu da bere armadarekin. Espero ez duen zerbait topatuko du han erregeak.



**'Tristura'**

**Idazlea:** Joseba Sarrionandia.  
**Ilustratzailea:** Irimarra.  
**Argitaletxea:** Ikaseltar.

Tristura du abiapuntu Joseba Sarrionandiak idatzi eta Irene Iruretak eta Karmele Gorroñok osatzen duten Irimarra biko-teak ilustratu duten albumak. Ikaseltar hezkuntza argitaletxe-ak plazaratu du, haurrei oinarri-zko emozioak lantzen laguntzea xede duen Kuku! bilduman.



**Izengoititegia. Izarbe eta Mañeru ibarretako euskal izengoitiak**

**Egilea:** Koldo Colomo Castro.  
**Argitaletxea:** Pamiela.

**'Izengoititegia. Izarbe eta Mañeru ibarretako euskal izengoitiak'**

**Egilea:** Koldo Colomo Castro.  
**Argitaletxea:** Pamiela.

Ondare onomastikoa ez ezik, Izarbe eta Mañeru ibarretako euskal izengoitiak euskaraz gozatzeko sormen iturri ere badira. Lagunarteko euskaraz eroso eta modu adierazkorrean aritze-ko baliabide lexiko eta linguisti-koak eskaintzen ditu liburukak.

# Zaleak egiten

**HAUR ETA GAZTE LITERATURA**

Imanol Mercero

Azal gogorreko liburu ertaina da (30x26 cm), eta 48 orrialde ditu. Album ilustratua izanik, orrialde osoak eta orri bikoak hartzen dituzten ilustrazioekin egina dago, nahiz eta badien zenbait orrialde binetekin, ekitntza kateak adierazteko edo. Gidoia aurreikustea erraza da, baina ez horregatik makala. Pertsonaien aurkezpena eta eszenatoki-zenbaiten kontakizunaren hariarekin batera doaz, uz-tardura naturalean.

Ilustrazio lanak Beatrix Potter-en eskolakoa dirudi, urmargoe-tan adierazia, kolore leunen na-gusitasunarekin, animalien fisio-nomia errespetatuz (gizatiar bihurtuta daudelarik ere), ingu-runea zehaztasun handiarekin adierazita hala komeni denean, eta komeni ez denean hondo zu-rrian emanda pertsonaia.

Eta, horren guztiaren ondo-rioz, halako atmosfera lainotsu berezia sortzen da, alegiazko mundua dela adierazten, ipuinen hurralde bera eraikitzen duena, gure erreallitatearekiko paralelo-an dagoena, eta horrexegatik *erreala* bihurtzen duena.

Hala ere, nire ikuspuntutik, kontakizunak proposatzen duen gaia da aipagarriena: irakurzale-tasuna, eta hura sustatzeko ematzen dituen pistak eta adore me-zuak.



**'Aitzearen liburubusa'**

**Idazlea:** Inga Moore. **Ilustratzailea:** Inga Moore. **Itzultzailea:** Amets Santxez Munain. **Argitaletxea:** Ibaizabal.

# Utikan ipuin hezitzaileak

**HAUR ETA GAZTE LITERATURA**

Imanol Mercero

Azal gogorreko liburu etzana da (21x24 cm), eta 42 orrialde ditu. Album ilustratua da.

Infantila dei daitekeen ilustrazio mota erakusten du. Haur protagonista buruhandi xamarra da, inguruan pampina eta jostailu ugari dituena, eta pertsonaia gaizto aski samurtuen konplizitatean ari zaiguna. Errematerako, txakur txiki bat du bidelagun.

Kontua da ohe azpiko maitagarria gaixotu egin zaiola, eta bere kabuz aritu beharko duela gainerako irudimenezko izakiak artatzen: armariruko itzala, mahai azpiko munstro papur-jalea, basoko erregea...

Halako planteamendu gozoa-reakin erreparoa pizten zait niri, baina oraingoan uste ez nuen bi-detik jotzen du gidoiak. Izan ere,

alegiatzko pertsonaiekin gero eta txikizio handiagoak egiten ditu protagonistak (jana lurretik, bai-nuontziko ura eskaileretan behe-ra noranahi...), egin behar ez di-renen katalogo bat osatzen ariko balitz bezala, eta, azken orrialde-etan, gurasoak agertzen, katar-sia gertatzen da, gurasoak ere jo-las simbolikoaren partaide direla jakiten dugunean.

Garbi dago egileak haurraren plazera bilatu duela, eta ez gura-soak asetzeko *zintzokeria*.



**'Nire ohe azpiko maitagarria'**

**Idazlea:** Rosalinde Bonnet.  
**Ilustratzailea:** Rosalinde Bonnet.  
**Itzultzailea:** Amets Santxez Munain.  
**Argitaletxea:** Ibaizabal.